



# JARDUERA MEMORIA

# 2025



**1**

## **Ingurunearekiko konpromisoa**

Oronako Zuzendaritza Nagusiaren Agurra

Fundazioaren helburuak

Orona Fundazioa gara

**2**

## **Jardun-esparruak eta -eredua**

COFIP

Gizarterantz

Ekitaldiak

**3**

## **Proiektu nagusiak 2025**

Esperientzia kooperatiboa

0 kilometroa

Gizarte-kohesioa

Garapen akademikoa

Garapen kulturala

Euskararen sustapena

Biodibertsitatea

## Oronako Zuzendaritza Nagusiaren Agurra

# Konpromisoa elkartasuna eta lankidetzaz eskaintzeko

Orona Fundazioaren urteko memoria aurkezten dugu, aurten garatu ditugun jarduerak ez ezik, erakunde modura dugun konpromisoaren funtsa jasotzeko espazioa.

Orona sei hamarkada baino gehiagoko ibilbidearen emaitza da. Denbora horretan Europan erreferente izatea lortu dugu mugikortasun bertikaleko irtenbideei dagokienez, gure proiektu sozioenpresarialeko kide diren 6.900 pertsona baino gehiagok egindako eginahalari esker. Proiektua, bere nazioarteko dimentsiotik harago, tokiko konpromiso indartsua eta elkartasunean, ekitatean eta parte-hartze aktiboan oinarritutako eredua ditu erregai.

Orona Fundaziotik ikuspegi horrek gizarteari egiazko ekarpena egin diezaion egiten dugu lan, prestakuntzaren eta garapenaren, kulturaren eta gizarte-kohesioaren arloetan hainbat ekimen bultzatuz.



Oier Lizarazu Iztueta  
Oronako Zuzendari Nagusia

2025. urtean urrats gehiago eman ditugu norabide horretan. Hainbat gizarte-eragileren lankidetzarekin, gure ingurunean inpaktu positiboa sortzeko xedea duten proiektuak garatzen jarraitu dugu; horrela, gizarte-konpromisoa eta kooperazioa ardatz nagusi izan daitezen lagundu dugu, bai enpresa mailan, eta baita gure komunitatean ere.

Hemen jasotako ekimen bakoitza lankidetzaren eta konpromiso partekatuaren ondorio da.

Mila esker hori ahalbidetzen duten guztiei, garapen jasangarria eta gizarte-ongizatea erdian kokatuko dituen etorkizun baterantz pauso irmoz aurreratzen jarraitzen dugu.

## Fundazioaren helburuak

# Hezkuntza, kultura eta gizarte garapena sustatuz

### Konpromisoa GJHekin



Fundazioaren estatutuen arabera, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da Orona Fundazioa, eta honako hau da haren helburua: gizartearen beharren bilakaerak eskatzen dituen jakintza-arlo guztietan hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-ekintzak sustatzeko jarduerak eta ekimenak egitea.

Alde horretatik, fundazioaren helburuen artean sartzen dira: hezkuntza- eta ikerketa-zentroak sustatzeko eta kudeatzeko jarduerak; hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko baliabide materialak bideratzea; eta kongresu, mintegi, ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak antolatzea.

Halaber, fundazioaren helburua da ekonomia soziala sustatzea eta babestea, kooperatibismoaren balioak hedatzea, laneratze profesionala sustatzea, eta era guztietako kultura-, gizarte-, ongintza-jarduerak babestea.



## Orona Fundazioa gara Berrikuntza eta **konpromisoa** **etorkizun** jasangarri baterako



Orona fundazioaren helburua gizartearen garapenean laguntzea da sozioekonomia, kultura, hezkuntza, gizarte eta kirol arloei dagokienez.

Horretarako, proiektuak garatzen ditugu hainbat gizarte-erakunderekin lankidetzan, azpiegitura, giza kapitala eta funtsen atzematea eskainiz.

Ekarpen-eredua proaktiboa da. Gizarte-eragileekin batera jarduerak egiten dira, eta baliabideak jartzen dira horretarako: azpiegitura, giza kapitala, harremanetarako ahalmena eta finantza-baliabideak.

Beste urte batez, fundazioak ekarpena egiten dio Oronaren gizarte-berrikuntzari. Modu horretan, COFIP (Kooperatiba hezkuntza eta sustapenerako eta Interes Publikoko beste Helburu batzuetarako Kontribuzioa) bidez urtero egiten diren diruzko ekarpenei bultzada gehigarria ematen diegu, Kontseilu Sozialaren irizpideei jarraikiz.

## Jardute-eremuak

# Ekintza bakoitzarekin benetako inpaktua bilatuz



Orona Fundazioaren jardura hiru ekintza-esparru nagusiren inguruan antolatzen da:

- COFIP
- Gizarterantz
- Ekitaldiak

Lehendabiziko bi esparruak, COFIP eta Gizarterantz, gizartean inpaktu positibo eta ukigarria sortzera daude bideratuta. Hori lortzeko elkarteei edota gizarte-erakunde ezberdinek gidatutako ekimen edo proiektu jakinei, zuzeneko laguntza ematen zaie.

Helburua erakunde horiek beren ekintza-esparruan dagoeneko burutzen duten lana indartzea da, modu horretan, gizarte-onura hainbat alderditatik bultzatuz.

Horrela, Orona Fundazioak ingurune inklusiboago, ekitatiboago eta solidarioagoa sortzen laguntzen du, guztion ongizatearen alde lan egiten dutenekin lankidetzan aritzen baita.

Hirugarren esparrua Ekitaldiena da, eta bertan Orona Fundazioak Orona Ideoren barruan dituen espazioetan jarduerak antolatu eta kudeatzen ditu. Ekitaldi horiek izaera eta xede askotarikoak dituzte, eta eragile mota ezberdinek bultzatu ditzakete:

- Orona Ideo ekosistemako kide diren eragileak, espazio horiek baliatzen dituztenak ezagutza partekatu, lankidetzan aritu eta sarea indartzeko.

- Gizarte-elkarte edo -erakundeak, Fundazioaren balioen ildotik, instalazioak komunitaterako onuragarriak diren jarduerak burutzeko erabiltzen dituztenak.
- Ingurune berritzaile eta bakan batean bilkura, aurkezpen, jardunaldi edo ekitaldi korporatiboak egiteko interesa duten enpresak.

Egitura horrekin, Orona Fundazioaren asmoa, zuzeneko gizarte-ekintzaren bidez inpaktua sortzeaz gain, gizarte- eta enpresa-ehuna aberastuko duen topaketa eta lankidetzarako espazio bat eskaintzea da, gizarte-eraldaketarekin eta garapen jasangarriarekin duen konpromisoa sendotuz.

## Jardute-eremuak

### COFIP

#### Gizarte-onurari erreparatzen zaionean zentzua hartzen duen onura



Hastapenetik, Oronaren eta Orona Fundazioaren ezaugarri nabarmenak bere konpromiso solidario irmoa eta ingurunearekiko gizarte-erantzukizuna izan dira. Balio horiek bere nortasun-ikur nagusien artean daude.

Konpromiso hori urteko etekinen zati bat COFIP-era (Kooperatiba hezkuntza eta sustapenerako eta Interes Publikoko beste Helburu batzuetarako Kontribuzioa) modu jarraituan zuzenduz islatzen da.

Ekarpen horiek ekimen kultural, sozial eta kirol arlokoak babesten dituzte, fundazioak komunitaterako garrantzitsuak diren esparru ugarian duen eragin positiboa sendotuz.

Laguntza horiek Kontseilu Sozialetatik kudeatzen dira, baliabideen esleipenean bitartekari modura jarduten dutenak. Erabilgarri daude funtsak bazkide kopurua kontuan izanik banatzen dira lantoki bakoitzean. Orona Fundazioa arduratzen da laguntza horiek banatzeaz. Banaketa-eredu horrek ziurtatzen du eragina ukigarria eta ekitatiboa izatea Orona, S. Coop. Kooperatibak bere jarduna burutzen duen herri guztietan, bertako gizarte- eta ekonomia-ehuna indartuz.

Ekimen horrekin, Orona Fundazioak abaguneen sorrerarekin eta garapen jasangarriarekin duen konpromisoa indartzen du, gizarte-eraldaketan eta komunitatearen aurrerabidean funtsezko eragile modura sendotuz.

#### COFIP banaketa 2025 2024ko emaitzen arabera



**1.752**

Bazkide

**41**

Lantokiak

**298**

Babestutako erakundeak



## Jardute-eremuak

### Gizarterantz

#### Gizarterantz da tokiko mailan gizartearen garapenerako lan-ildoak

Ingurua garatzeko (Gizarterantz) lan-ildoak dago zuzenkien errotuta tokiko gizartean, haren garapena hainbat ikuspegitatik sustatzea baitu helburu:

- Prestakuntza, heziketa eta ikerketa
- Jarduera kultural, sozial eta ongintzakoak
- Euskararen sustapena

Gure proiektuak funtsezko hainbat esparrutan garatzen dira, horietariko bakoitza eragin positibo eta iraunkorra sortzeko xedearekin. Gure gizarteko funtsezko zenbait alderdi eraldatu eta hobetu asmo dituzten ekimenak lantzen ditugu. Jarraian, zer jardute-eremuri erreparatzen diogun azalduko dugu, horietariko bakoitzean aurrerabideari eta jasangarritasunari begirako konpromisoa.

#### ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA

Garapen-proiektuak babesten ditugu, kooperazio-esperientziaren beraren balio solidarioen bidez.

#### 0 KILOMETROA

Elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko modua eredu jasangarriago batera aldatzea eta, gainera, tokiko ekonomiaren garapena sustatzea xede duten ekimenak biltzen ditu.

#### GIZARTE-KOHESIOA

Bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzearen alde egiten dugu lan; tokiko kolektiboaren partaidetza-sentimendua indartuz eta bere harreman-sareko eragileen arteko lotura sustatuz.

#### GARAPEN AKADEMIKOA

Irakaskuntza-erakundeen artean hezkuntza-berrikuntza bultzatu nahi dugu, ikasleek gaitasun berriak eskuratu eta garatu ditzaten.

#### GARAPEN KULTURALA

Gure gizartean kultura-jarduera bizirik mantendu nahi dugu, etorkizunari egindako ekarpen eta begirada gisa.

#### EUSKARAREN SUSTAPENA

Gure identitatearen parte den aldetik, euskara sustatzen duten proiektuak eta jarduerak bultzatzen ditugu.

#### BIODIBERTSITATEA

Biodibertsitatea bera funtsezko ondasun naturala da, eta, horregatik, haren garrantzia eta kontserbazioa sustatzen ditugu garapen ekonomikorako eta aurrerapen sozialerako.

## Jardute-eremuak

### Ekitaldiak

Orona Ideo ingurune hurbilean dauden eragile ezberdinentzat topaleku gisa jarduten duen espazioa da, lankidetzaz, ideia-trukea eta tokiko sareak indartzea sustatuz.

Gainera, bere instalazioak eskaintzen dizkie hirugarren erakundeei ekitaldiak antolatu ditzaten. Modu horretan sektore ezberdinen arteko elkarrekintza sustatzen du eta baterako intereseko jardueretarako funtsezko leku gisa sendotzen da.

2025ean 107 ekitaldi egin dira, eta horietatik 35 hirugarren erakundeen topaketak izan dira. Guztira, ekitaldietan, 7.665 pertsona bildu dira.

**107**  
bilerak edo ekitaldiak

**7.665**  
bisitariak



## Proiektu nagusiak 2025

# Inpaktu positiboa sustatzuz

2025. urtea mugarri garrantzitsua izan da gizarte-erakunde ezberdinekiko elkartasunaren eta lankidetzaren aktiboaren gure konpromisoa berresteko. Orona Fundazioan uste dugu inguruko gizarte-eragileekin batera lan egitea funtsezkoa dela gizartean eragin jasangarri eta adierazgarria sortzeko.

Denbora honetan zehar gizarte arloko esparru ezberdinetan zeregin erabakigarria betetzen duten erakunde ugariarekin ditugun harremanak indartu egin ditugu. Etengabeko lankidetzaren horrek esperientziak eta ezagutzak trukatzeko aukera emateaz gain, elkarren artean garatzen ditugun proiektuen irismenari eta eraginkortasunari ahalik eta etekin handiena ateratzeko abaguneak identifikatzeko aukera eman du.

Gure jardueraren ikuspegia zazpi jardute-eremu estrategikotan oinarritu da, zuhurtziaz zehaztu direnak komunitatean azaleratzen ari diren premiei erantzuteko, eta fundazioaren oinarritzko balioekin lerrokatuta daudenak. Esparru horretan sartzen dira heziketa inklusiboaren babesa, ingurumen arloko jasangarritasunaren bultzada, gizarteratzearen sustapena eta kultur ekimenen garapena.

Aurten nabarmendu diren proiektuen artean, heziketaren kalitatea hobetzera begirako ekimenak bultzatu ditugu, ikaskuntza guztiontzat baldintza berdinetan izan dadila sustatzeko baliabideak eta tresnak ahalbidetuz. Halaber, kolektibo zaurgarrien enplegarritasuna indartzeko programak landu ditugu, prestakuntza espezializatua emanez eta horiek laneratzeko laguntza emanez.



Jasangarritasunari dagokionez, ingurumen arloko erakundeekin batera zenbait ekintza abiarazi ditugu ingurunea zaintzeak duen garrantziari buruzko kontzientzia sorrarazteko, ingurumen-inpaktua murrizteko neurri zehatzak bultzatuz. Modu berean, kultur arloko eragileekin lankidetzan aritu gara tokiko ondare kulturala zaindu eta hedatzeko, etorkizuneko belaunaldiak legatu horrekin gozatu ahal izatea bermatuz.

Proiektu horietako bakoitzak Orona Fundazioa gidatzen duen kooperazio- eta konpromiso-izpiritua islatzen du. Gizarte-aldaketa eginahalak batuz eraikitzen dela uste dugu irmoki. Hori dela eta, gure baliabide, ezagutza eta energia itun horiek indartzera bideratzen jarraituko dugu. Gure xedea argia da: pertsonen bizitza modu positiboan eraldatuko duen eta gizartearen ongizate orokorrari lagunduko dion inpaktu iraunkorra sorraraztea.

## Proiektu nagusiak 2025

### ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA

Kooperazio proiektuak - Mundukide Fundazioa

Gogoeta Estrategikoko Jardunaldia - Zabalduz - gizarte-ekimeneko kooperatiba

### 0 KILOMETROA

Elikadura proiektua - Diametro 200

Batzar Nagusia - ENBA - Euskal Nekazarien Batasuna

Merkatu-e - San Martin Merkatua

### GIZARTE-KOHESIOA

Kind Surf - Shelter Surf Kluba

Denur - oztoporik gabeko bainua - Hegalak Zabalik

Guztion Olatuak - Donostiako Zurriola Surf Kluba

Donosti Cup 2025 aurkezpena - Donosti Cup

Authentic Day by Orona Fundazioa - Donosti Cup

Bizi Hadi - kirol inklusiboko taldea - Bizi Hadi

Dragon Boat - Club HS2 Surf Hondarribia

Talde inklusiboa - Hernani Club Rugby Elkartea

Triatloi egokituaren txapelketa - Zumaia Triatloi Taldea

Powerchair Futbol Taldea - Kemen Kirol taldea

DA Familia-kanpalekua - Duchenne FM Elkartea

Errebeldeak fest 2025 - Dame Tvición

40. urteurreneko jardunaldia - Izan Fundazioa - Proyecto Hombre

Gertu kultura - Kultur Kabia Elkartea

Txiki Txoko - Arrats Elkartea

Bipedestadoreen eskurapena - ASPACE Gipuzkoa

Opera y + - ABAO Bilbao Opera

Urteko Batzarra - Nagusilan Elkartea

Prestakuntza berdintasunean - Gautena - Autismoaren Gipuzkoako Elkartea

Prestakuntza berdintasunean - Arrats Elkartea

Gogoeta estrategikoko jardunaldia - Kolore guztiak Kulturarteko elkartea

### GARAPEN AKADEMIKOA

First Lego League - Santo Tomas Lizeoa

Teknologia-tailerrak - Doplay

PBL Day - Mondragon Unibertsitatea

Kaixo Mundua - Puntueus Fundazioa

Bizipoza Eskola - Bizipoza Elkartea

Bidean prestakuntza proiektua - (H)emen Elkartea

Bullyingari Galga - Ihitten Elkartea

Marramiau - Pakita Kultur Elkartea

### GARAPEN KULTURALA

San Juan baleontzia - Albaola Itsas Faktoria

Tolofolk jaialdia - Jeajeaka Kultur Elkartea

Sentsibilizazio proiektua - Landarbaso

Binakako Erremonte Txapelketak - Erremontea

Dokumentala *Ni ez naiz sorgina* - Herrima Kultur Elkartea

Omenaldia *Nik ere maite zaitut* - Maite Zaitut Kultur Elkartea

Euskal musika ondarea - Donosti Ereski Gregoriar Schola

Igogailua film laburra - Gastibeltza Filmak

Donostiako orfeoia - Donostiako orfeoia

150. urteurrena - Valentin Larrea

Itsaspeko ikerketa arkeologikoa - Suhar Arkeologia Elkartea

### EUSKARAREN SUSTAPENA

Ikastolen jaiak - Erronka ekimena - EHI - Euskal Herriko Ikastolak

Bertsolari aldizkaria - Bertsozale elkartea

Erakusketa *Kanthoria eta auto-tunea* - Musika Bulegoa

EuskarAbentura espedizioa - EuskarAbentura Elkartea

Jaigi Hadi dokumentala - AEK - Mirokutana

### BIODIBERTSITATEA

Espazio naturalen berreskurapena - Irukurutzeta Fundazioa

Enarak proiektua - Aranzadi Zientzia Elkartea

## Esperientzia kooperatiboa

# Kooperatibaren balio solidarioak sustatuz

01

### KOOPERAZIO-PROIEKTUAK MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Lanak duen indar eraldatzailearekin eta elkartasuna eta gizarte-justizia sustatzen duten proiektuak bultzatzearen garrantziarekin sinetsita gaude. Horregatik, Mundukide Fundazioak egiten duen lana babesten dugu. Erakunde horrek kooperazio-programak garatzen ditu duela zenbait urtetik hegoaldeko herrialdeetan, tokiko komunitateen garapen autogestionatu eta iraunkorra sustatuz.

Mundukide, gaur egun, kooperazioan murgilduta dago Mozambique, Brasil, Kolonbia eta Ekuadorren, 12 kooperantez eta tokiko 45 langilez osatutako lantalde finko batekin.

Mozambiken hogeitau urte baino gehiago daramatza erakundeak iparraldeko nekazal familiekin lankidetzan garatuz. Giza garapenaren indize oso apala duten herrialdeetako bat da. Programaren helburua da familiek beren lanetik lortzen duten etekina areagotzea eta, modu horretan, beren diru-sarrerak, bizi-baldintzak eta autonomia hobetu dezatela.

Brasileko programaren helburua kolektibo zaurgarrien egoera sozioekonomikoa indartzea da. Horretarako, Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST) mugimenduarekin egiten dute lan, berau osatzen duten kooperatiben garapenean kolaboratuz.

Kolonbian hondakinak bildu eta sailkatzen aritzen diren elkarrekin aritzen dira lankidetzan, hondakin horiek birziklatzeko xedez. Gainera, emakume nekazari indigenekin kooperatzen dute, beren familiaren ekonomia indartu asmoz.

Azkenik, Ekuadorreko programaren helburua da garapen sozioekonomiko iraunkorra bultzatu eta iparraldeko mugako eta Amazoniako landa eremuko erakundeen artean asoziazionismoa indartzea.



## 0 kilometroa

# Eredu jasangarriago bateranzko urratsak emanez

01

### ELIKADURA PROIEKTUA

#### DIAMETRO 200


Oronako langileei eta Orona Ideoko erabiltzaileei (Orona, Mondragon Unibertsitatea eta Ikerlan) garaian garaiko elikadura, kalitate onenekoa eta bertan ekoitzia eskaintzea da elikadura-eredu paregabe eta propio horren oinarria. Elikagaiak metodo tradizionalak erabiliz prozesatzen dira, ingurumena errespetatzea lehenetsiz, eta nekazari, abeltzain eta arrantzaleek bidezko prezioa jasotzen dute beren uztaren edo harrapaketa truke.

Gure Elikagai, S.L.-ren bidez, Oronak 0 kilometroko produktueta oinarritutako elikadura-eredu osasungarri bat eskaintzen die Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileei nahiz Diametro 200 jatetxera etortzen diren kanpoko bezeroei.

Oronan lan egiten duten pertsonen artean kultura osasungarria sustatzeko eta elikagai gutxiago alferrik galtzeko beste bide bat da eguneroko menuko otordua etxera eramatea.

2025ean zehar Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileei 98.512 otordu eman zaizkie Hernaniko instalazioetan.

Otordu horiek guztiak emateko 2025ean erositako lehengaiei dagokienez, % 67 hurbileko produktuak dira (200 km-ko diametro barruan du jatorria) eta/edo produktu ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak.



## 0 kilometroa

02

### BATZAR NAGUSIA

#### ENBA - EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA

Orona Fundazioaren auditorioan ospatu zen ENBA Gipuzkoaren (Euskadiko baserritar profesionalen nekazal erakundea) 33. Batzar Nagusia.

Beste urte batez, Orona Fundazioak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreari so funtsezkoa den topaketa hau babestu eta hartu nahi izan dugu, modu horretan, landa-eremuarekiko eta ekoizleek lurralde orekatu eta jasangarria eraikitzeko burutzen duten funtsezko zereginarekiko gure konpromisoa indartuz.

1991n sortu zenetik, ENBA elkarteak baserritar profesionalen interesak bultzatu eta defendatzen ditu, beren ustategietako errentagarritasuna bultzatuz eta landa-eremua bizirik eta ingurumenari so modu orekatuan mantentzen lagunduz.



03

### MERKATU-E

#### SAN MARTIN MERKATUA

Orona Fundazioak San Martin Merkatuarekin lankidetzan jarraitzen du, Merkatu-e proiektuaren barruan. Gure inguruan ekoiztutako kalitate oneneko produktuak Donostialdeako etxeetara modu jasangarrian gerturatzen ditugu.

Merkatu-e proiektuaren bidez, betiko hornidura-azokaz gain, bere bertsio digitala ere eskaintzen da orain. Plataforma berria da, eta, hor, erosketa online egin eta etxean jaso daiteke, Txita ibilgailu batean garraiatuta. Txita enpresa donostiarra da, aitzindaria garraio ekologikoan, eta erabiltzen dituen triziklo eta ibilgailu guztiak (% 100) elektrikoak dira.



## Gizarte-kohesioa

# Komunitate integratzailea sustatuz

01

### KIND SURF

#### SHELTER SURF KLUBA

Shelter Surf Klubak sustatzen duen Kind Surf proiektuak dibertsitate funtzionala duten haur eta gazteei surfean aritzeko aukera ematen die natura errespetatzen duen ingurune terapeutiko eta inklusibo batean.

2012 sortu zenetik, Kind Surf proiektua sendotu egin da surf egokituaren terapian erakunde aitzindari modura. Saioak Shelter Surf Klubean egiten dira, diziplina anitzeko talde baten gidaritzapean. Talde horretan surf terapeutikoko irakasleek, psikologoek, terapeuta okupazionalak, surflari profesionalak eta boluntario askok parte hartzen dute.



02

### DENUR - OZTOPORIK GABEKO BAINUA

#### HEGALAK ZABALIK

Denur- oztoporik gabeko bainua Hegalak Zabalik Fundazioak bultzatutako ekimena da eta bere helburua dibertsitate funtzionala eta mugikortasun urritasuna duten pertsonen aisiarekin eta itsasoarekin gozatzeko eskubidea bermatzea da.

Proiektua Donostiako Kontxako hondartzan burutzen da, eta adin guztiko pertsonen, gipuzkoarrei zein lurraldez kanpokoei, aukera ematen die itsasoan bainua modu seguru, lagundu eta irisgarrian hartzeko. Akonpainamendua doakoa da erabat, eta pertsona bakoitzak duen autonomia-mailara egokitzen da. Proiektuak mendekotasun gehien dutenei erreparatzen die bereziki, beren ongizate fisiko eta emozionalean modu aktiboan lagunduz.



03

### GUZTION OLATUAK

#### DONOSTIAKO ZURRIOLA SURF KLUBA

Guztion olatuak surf inklusiboko proiektua da, Zurriola Surf Klubak GAUTENA elkartearekin lankidetzan bultzatua. Proiektuaren helburua da Autismoaren Espektroko Nahasmendua (AEN) duten pertsonen surfean aritzeko aukera ematea, jarduera aberasgarri, irisgarri eta eraldatzaile modura.

Guztion olatuak proiektua 2023an jarri zen martxan, eta sinesmen sakon bat du abiapuntu: pertsona guztiek dute motibatzailea eta mesedegarria zaien, eta gainerakoekin konektatzeko aukera ematen dien esperientzia batekin gozatzeko eskubidea, edozein izanik ere pertsona horien gaitasunak edo ezaugarriak. Surfa, kirola izatetik harago, lanabes terapeutiko eta sozial bilakatzen da, bizi-kalitatea eta garapen fisiko zein emozionala hobetzen laguntzen duena.



## Gizarte-kohesioa

### 04 DONOSTI CUP AURKEZPENA DONOSTI CUP

Orona Fundazioaren auditorioan Donosti Cup ekimenaren 33. edizioaren aurkezpen ofiziala egin zen. Aurten 30 herrialdeetatik etorritako 900 talde lehiatu dira, eta 15.000 parte-hartzaile baino gehiago izan dira, orain arte egin den edizio internazionalenean.

Fundazioak kirolarekin, gazteekin eta gizarte-balioekin duen konpromisoaren barruan baitaratzen duen ekitaldian torneoko orainari zein geroari so funtsezkoak diren gaiak jorratu ziren: berdintasuna, elkartasuna eta inklusioa kirolean.

Donosti Cup lehiatik harago doan plataforma da duela zenbait urtetik, aniztasun kulturala, partaidetza eta begirunezko elkarbizitza uztartzen dituen kirol eredua sustatuz.



### 05 AUTHENTICS DAY BY ORONA FUNDAZIOA DONOSTI CUP

Donosti Authentics Cup torneoaren ospakizuna babesten jarraitzen dugu, Donosti Cup torneoaren bertsioa inklusiboa. Bosgarren edizioa ospatu zen, eta berriz ere, Anoetako Estadio Txikia emozioz, ilusioz eta adiskidetasunez bete zuen.

Authentics Day jardunaldiak Mexiko, Katalunia, Euskadi eta Frantziatik etorritako hamar talde elkartu zituen, eta torneo horretan parte hartzen duten pertsona guztiak hasi aurretik irabazle direla erakutsi zuten.

Beste behin, ekitaldia kirol egokituaren ospakizun eta aldarrikapenerako espazio gisa sendotu zen, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatzeko bitarteko gisa.



### 06 KIROL INKLUSIBOA BIZI HADI

Egoitza Oñatin duen ekimen honek modu aktiboan laguntzen du kirolaren bidez desgaitasuna duten pertsonen ongizatean eta gizarteratzean.

Klubak lau sekzio ditu (atletismoa, txirrindularitza, triatloia eta igeriketa), parte-hartzaileek beren gaitasun eta helburuetara ondoen egokitzen den diziplina aurkitu dezaten. Bizi Hadik lehiaketa egokitueta parte hartzen du, desgaitasuna duten pertsonen kolektiboaren eskubideak eta talentua ikusarazten lagunduz.

Bizi Hadik; era berean, heziketaren eta gizartearen sentsibilizazioaren alde egiten du. Bertako kideek ikastetxeak bisitatzen dituzte, gazteenekin beren esperientziak partekatzen dituzte eta material egokituak eskaintzen dute.



## Gizarte-kohesioa

07

### TALDE INKLUSIBOA

#### HERNANI CLUB RUGBY ELKARTEA

Hernani RE tokiko eragile dinamizatzailea da, elkartasuna, errespetua eta talde-lana ardatz hartuta ehunka pertsona batzen dituen.

Bere talde inklusiboa sortuta, klubak beste urrats bat eman du, ateak pertsona guztiei zabalduz, edozein izanik ere beren adina, generoa edo funtzionaltasuna.

Gure laguntzarekin, taldeak entrenatzeko, torneoetan parte hartzeko eta denboran iraungo duen egitura bat mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak izan ditzan laguntzen dugu. Gainera, bere jardueren hedapena bultzatzen dugu, txapelketa inklusiboetatik hasi eta sentsibilizazio-jardunaldietara.



08

### DRAGON BOAT

#### CLUB HS2 SURF HONDARRIBIA

Kirol proiektu hau da lurraldean dagoen mota horretako lehendabiziko proiektua, eta proposamen berritzailea dakar, inklusioa, osasuna eta komunitatea oinarritzat dituen.

Dragon Boaten taldea, gaur egun, 40 pertsonak (adin guztietako gizon eta emakumeak) osatzen dute, eta ekimenean gehien nabarmentzen den alderdietako bat bere balio terapeutikoa da.

Dragon Boat bularreko minbiziarekin borrokatu diren pertsonentzat bereziki mesedegarria dela frogatu da, jardun horrekin sendatzeko aliatu garrantzitsua aurkitzen baitute. Ariketa fisikoa, itsas ingurunea eta taldearen indarra uztartuta, pertsona asko bere ahalmena zein den ikusten ari da berriro, eta bere ongizatea indartzen ari da.



09

### TRIATLOI EGOKITUAREN TXAPELKETA

#### ZUMAIAKO TRIATLOI TALDEA

Triatloi Egokituaren Euskadiko Txapelketa Zumaian jokatu zen irailaren 6an, Zumaia Super Sprint Triatloia barruan.

Super sprint modalitatean antolatutako proba horrek formatu labur eta dinamikoa (350 metro igerian, 11,4 kilometro txirrinduan eta 2,5 kilometro lasterka) proposatzen du. Horrela atleta kadeteek zein dibertsitate funtzionala duten kirolariek parte hartu dezakete.

Orona Fundazioan kirola gizarte-eraldaketarako tresna dela uste dugu irmoki. Horregatik, babesten ditugu Triatloi Egokituaren Euskadiko Txapelketaren moduko ekimenak, hesiak hausten, parte-hartze aktiboa bultzatzen eta eginahalaren eta kooperazioaren balioak indartzen laguntzen baitute.



## Gizarte-kohesioa

10

### POWERCHAIR FUTBOL TALDEA KEMEN KIROL TALDEA

KEMEN Kirol Taldeak desgaitasun funtzionala eta zentzumenekoa duten pertsonen artean kirola sustatzeko egiten du lan duela zenbait urtetik, kirol egokituaren bidez parte hartzeko eta garapen personalerako espazioak eskainiz.

Powerchair Futbola futbol modalitate egokitua da, eta gurpildun aulki elektrikoetan jokatzeko da. Desgaitasun fisiko nabariak dituzten pertsonentzat dago diseinatua kirol hau, eta aukera ematen du lehiaketarekin goatzeko baldintza berdinetan, mugitze-trebetasunak, taldearen izpiritua eta sozializazioa bultzatuz.

Fundazioak taldea babesten du Powerchair modalitateko Bigarren Mailaren barruan sendotzeko prozesuaren barruan.



11

### BIPEDESTADOREEN ESKURAPENA ASPACE GIPUZKOA

ASPACE Gipuzkoa 50 urtetik gorako ibilbidea duen irabazi asmorik gabeko familien elkarte da, buruko paralisia duten pertsonen beren bizi-ziklo osoan zehar bizi-kalitate hobea izan dezaten lortu nahi duena.

Orona Fundaziotik hiru bipedestadore baitaratzeko ideia babestu genuen, garuneko paralisia eta horrekin lotutako asaldurak dituzten ikasleek erabiltzeko.

Gailu horiei esker, beren kabuz zutik jarri ezin diren haur eta gazteek gorputz-jarrera bertikala hartzeko aukera izango dute, eta horrekin beren garapenerako funtsezkoak diren onura fisiko, emozional eta sozialak lortuko dituzte.



12

### 40. URTEURRENEKO JARDUNALDIA IZAN FUNDAZIOA - PROYECTO HOMBRE

Joan den maiatzaren 30ean Orona Fundazioaren auditorioan Izan Fundazioa – Proyecto Hombre, fundazioaren 40. Urteurreneko jardunaldia hartu genuen “Osoko arreta adikzioetatik harago” lelopean.

Izan Fundazioak antolatuta topaketan osasun arloko profesionalak, gizarte-eragileak, familiak eta adikzioen tratamenduarekin zerikusia duten pertsonak elkartu ziren, gaur egun osasun mentalaren eta arreta terapeutikoaren alorrean dauden erronken inguruan gogoeta egiteko xedez.

Jardunaldian zehar gaurkotasunezko zenbait gai jorratu ziren, esate baterako, portaerazko adikzioak, justizia terapeutikoa, familiekin egiten diren esku-hartzeak edo tratamendu-prozesuetan osasun mentala txertatzeko premia.



## Gizarte-kohesioa

13

### GERTU KULTURA

#### KULTUR KABIA ELKARTEA

Gertu Kultura proiektua irisgarritasun kulturalako sarea da, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen kultura gerturatzeko, inklusiorako, duintasunerako eta gizarte-eraldaketarako funtsezko lanabes gisa duen zeregina babestuz.

Programatzaile kulturalen, gizarte-erakundeen eta konprometitutako instituzioen sare batek bultzatuta, proiektuaren barruan ikuskizunak, kontzertuak, antzezlanak, bisita gidatuak, museoak eta jarduera kulturalak eskaintzen zaizkie prezio irisgarrietan edo doan desgaitasuna duten pertsonen, bazterkeria-arriskuan daudenei edo Gizarte Zerbitzuetan artatzen dituztenei.

2024ko urtarriletik 2025eko apirilera, 3.744 pertsona baino gehiagok izan dute kultur arloko 324 esperientzia baino gehiagorekin gozatzeko aukera programa honi esker.



14

### TXIKI TXOKO

#### ARRATS ELKARTEA

TxikiTxoko proiektua oinarritzko premia batierantzuteko xedez sortu zen: seme-alabak zaintzapean izanik, zaurgarritasun-egoeran dauden emakume etorkinen kontziliazioa eta akonpainamendua bultzatzea.

Txiki Txoko proiektua, nagusiki, gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden emakume etorkinei dago zuzendua. Horietako asko bakarrik dauden amak dira, haurdun daudenak edo iritsi berriak direnak, lan prekarioak dituztenak, erregulazio-prozesuan daudenak eta lurraldean familia-sarerik edo komunitate-sarerik ez dutenak.

Ekimenak espazio seguru eta abegitsua eskaintzen du, eta bertan emakumeek laguntza emozionala jaso dezakete, esperientziak partekatu ditzakete eta, batez ere, adin txikiko beren seme-alaben zaintzarako zerbitzu bat izan dezakete, beraiek prestakuntzako, gizarteratzeko edo pertsonalki indartzeko jardueretan parte hartzen duten bitartean.



15

### DA FAMILIA-KANPALEKUA

#### DUCHENNE FM ELKARTEA

Duchenne FM elkarteak Duchenne eta Beckerren muskulu-distrofia pairatzen duten pertsonen zein beren senide eta zaintzaileen alde lan egiten duen erakundea da.

Duchenneren muskulu-distrofia gaixotasun genetiko eta endekapenezkoa da, gehienbat gizonengan eragiten duena haurtzarotik, gorputzeko gihar guztiak pixkanaka ahuldu egiten dituen, bihotza barne.

Errealitate gogor horren aurrean, kanpamentu honek topalekua, akonpainamendua eta arnasaldi emozionala eskaintzen die Espainia osotik etorritako 16 familiari. Hainbat egunez, muskulu-distrofia pairatzen duten haur eta gazteek aisialdiko jarduera egokituta parte hartzeko aukera dute, bizipen bera duten beste pertsona batzuekin batera, hesirik gabeko ingurune % 100 inklusiboan.



## Gizarte-kohesioa

16

### ERREBELDEAK FEST 2025

#### DAME TVSIÓN

Urriaren 11n, Hernani inklusioaren erreferente bilakatu zen berriro, Errebeldeak Fest – Kirol Musika Inklusiboaren bosgarren edizioa ospatuta. Kirolaren eta musikaren jaialdi inklusibo hori dameTVision kultura elkarteak gidatzen du.

Jaialdia Ibon Casas rockeroitsuak zuzenduta, apustu ausart eta aitzindari gisa sortu zen. Gaur egun inklusiorako plataforma gisa sendotu egin da, eta kirolarekiko eta musikarekiko pasioak hesiak hautsi, adin eta gaitasun guztietako pertsonak elkartu eta gizarte-inpaktu indartsua sortu ditzakeela erakusten du.

Desgaitasuna duten pertsonak eta halakorik ez dutenak parte har dezatela bultzatzeaz gain, Errebeldeak Fest jaialdiak Hernaniko gazteak eta familiak inplikatu nahi ditu, herria irisgarritasuna eta inklusioan erreferente izan dadin.



17

### OPERA Y+

#### ABAO BILBAO OPERA

Programa hau helburu argi batekin sortu zen: musikaren eta kulturaren bidez pazienteen, familien eta arlo soziosanitarioan lan egiten duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Hamarkada batez, Opera y + programa 7.500 pertsona onuradun baino gehiagorengana iritsi da, Pediatria Zerbitzuan ospitaleratutako jaioberri eta haurrak, gaixotasun kronikoak dituzten pertsona helduak, horien senideak eta osasun arloko profesionalak kontuan izanik.

Tailerrak egin, hitzaldiak eman eta funtzioetara joanez, opera estresa eta herztura murrizteko gaitasuna dela frogatu da, gogo-aldatea hobetuz, berreskurapen emozionala akuilatuz eta, finean, ospitaleratzearen inguruko testuinguru osoa gizatiartuz.



## Garapen akademikoa

# Heziketa bultzatuz itunen bidez

01

### FIRST LEGO LEAGUE SANTO TOMAS LIZEOA

Gure laguntza eman diegu Santo Tomas Lizeoa ikastetxeko ikasleei FIRST LEGO League Spain txapelketako finalean parte hartzeko, Ferrolen jokatu zena martxoaren 29an.

Erreferentziazko heziketa-ekitaldi horretan 6-16 urte bitarteko 700 gazte baino gehiago elkartu ziren, eta beraiek diseinatu eta programatutako berrikuntza-proiektuak eta errobotak aurkeztu zituzten bertan.

Ozeanoen azterketari begiratu zion edizio horretan, ikasle-taldeek itsas bitartekoaren inguruan dugun

ezagutza eta bere babesa hobetzeko irtenbide sortzaileak ikertu dituzte.

Santo Tomas Lizeoa ikastetxeko taldeak finalean LIZEOBOTS proiektua aurkeztu zuen, proposatutako erronkarekin lerrokatutako berrikuntza-proiektua. Gainera, misio tekniko ezberdinak gainditzeko gai izan zen errobota eraiki eta programatu zuten. Hainbat hilabetez, gazteak talde-lanean aritu dira, hainbat trebetasun garatuz, esate baterako, lankidetzaz, arazoaren ebazpena eta pentsamendu kritikoa.




02

### TEKNOLOGIA-TAILERRAK DOPLAY

Beste urte batez, Doplayekin lankidetzan aritu gara Orona Fundazioaren instalazioetan udako teknologia-tailerrak hartzeko.

Tailerrak 8-17 urte bitarteko gazteei daude zuzenduta, robotikan, programazioan, bideo-jokoen diseinuan, animazioan, errealitate areagotuan eta birtualean ikaskuntza sustatzeko xedez.



## Garapen akademikoa

03

### PBLDAY

#### MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Project Based Learning (PBL), metodologiari balioa ematen dion ekitaldia Orona Fundazioaren instalazioetan egin zen eta 842 pertsona baino gehiago elkartu ziren, eta erakusleihu izan zen Mondragon Unibertsitateko ingeniartzako graduetako ikasleek ikasturteko lehendabiziko seihilekoan garatutako 28 proiektu onenak erakusteko.

Edizio honetan Mondragon Unibertsitateak eskaintzen dituen ingeniartzako hamar titulazioetako 1., 2. eta 3. Mailako 1.500 ikaslek parte hartu zuten, guztira 300 proiektu baino gehiago garatuz.

PBL Day ikasturte akademikoko hitzordu inspiratzaileenetako bat da, izan ere, urtean zehar,

ezagutza teknikoak, zientziakoak eta sozialak uztartuz, gaurkotasuneko arazoen aurrean benetako irtenbideak diseinatzeko dituzten ehunka ikasleen eginahala ikusteko aukera ematen du.

Orona Fundazioak emandako sari nagusia Egoitz Olaizola, Luis Guerricagoitia, Mikel Ubiria eta Luiza Ferreirak osatutako taldearentzat izan zen, Industria Prozesuetan Ekoteknologien Ingeniartzako 3. mailako ikasleak. Taldeak surf-orri iraunkor baten prototipoa aurkeztu zuen. Proiektua bere ikuspegi teknikoagatik, jasangarritasunarekiko konpromisoarengatik eta benetan aplikatzeko ahalmenarengatik nabarmendu zen.



04

### KAIXO MUNDUA

#### PUNTUEUS FUNDAZIOA

Kaixo Mundua proiektuaren helburua da ikasleen gaitasun teknologikoak indartzea eta esparru digitalean euskararen erabilera sustatzea.

Eraldaketa digitala etengabea den munduan, eta Interneten euskararen presentzia bermatzea ezinbesteko erronka da gure kultura zaintzeari begira. Programak aukera ematen die maila ezberdinetako ikasleei beren web-orrialdeak sortzeko, benetako proiektuei bizitasuna emate aldera, komunikazio digitalerako beren gaitasuna, beren pentsamendu kritikoa, beren autonomia teknologikoa eta talde-lana indartuz. Baina, batez ere, euskaraz egiten dute. Modu horretan, Internet pluralagoa, anitzagoa eta ordezkatzaileagoa izaten laguntzen dute.



## Garapen akademikoa

05

### BIZIPOZA ESKOLA BIZIPOZA ELKARTEA

Bizipoza elkarteak premia bereziak dituzten familien eta pertsonen elkarteak hartzen ditu.

Bizipoza Eskola hezkuntzaren esparruan eta komunitatean inklusioa lantzeko ikasmaterialak eta lanabes pedagogikoak eskaintzeko xedearekin sortu zen.

Material horiek hezkuntza formal zein ez-formalean erabiltzeko daude diseinatuta, funtsezko zenbait gai lantzeko, besteak beste: ezagutza pertsonala eta talde-kidetasuna, genero-rolak, identitatea eta transexualitatea, dolua eta heriotza, dibertsitate funtzionala eta gaixotasun kronikoak edo larriak.



06

### BIDEAN PRESTAKUNTZA-PROIEKTUA (H)EMEN ELKARTEA

(H)emen elkarteak 2016az geroztik ari da lanean Euskal Herriko ikus-entzunezko eta arte eszenikoen sektorean diharduten emakume profesionalak bistaratzeko.

Bidean emakumeen presentzia eta profesionalizazioa indartzeko programa estrategiko modura sortu zen, izan ere, esparru horretan, ikus-entzunezko ikasketetan % 55 baino gehiago badira ere, ekoizpen-taldetara % 35 inguru baino ez da iristen.

Bidean programaren barruan prestakuntza eskainiko da, begirada feminista batekin. Horrela, ibilbide profesionalak irekitzeaz gain, kulturaren sektorean kontakizun feminista indartzen laguntzen du.



07

### BULLYINGARI GALGA IHITTEN ELKARTEA

Bullyingari Galga proiektua eskola-jazarpenaren aurkako proiektu berritzailea da, ikus-entzunezko eduki hurbileko eta berezkoak sortu asmo dituen, euskaraz eginak, eta Euskal Herriko gazteen lekukotzarekin. Material horietan jazarpen mota ezberdinak jorratuko dira, ikuspegi positibo batetik, enpatia eta erresilientzia erdigunera eramanez.

Bideoak eta baliabideak haurrei, gazteei, senideei eta hezkuntzako profesionalei egongo dira zuzenduta, eta ikastetxeetan, gurasoen elkartetan, familia-programetan, haur eta gazteen psikologia zentroetan eta aisia hezigarriko taldeetan erabiliko dira.

Helburua da gizarteari sentsibilizaziorako, prebentziorako eta elkarbizitza hobetzeko lanabes eraginkorrak ematea.



## Garapen akademikoa


08

### MARRAMIAU

#### PAKITA KULTUR ELKARTEA

Argizagi seriearekin lotutako sorkuntza-tailerren programa. Zubiak adiskidetasunerantz, Marramiau sorkuntza-taldeak garatutako ikus-entzunezko proposamena da, sormena, pedagogia eta zenbait balio (esate baterako, naturarekiko begirunea, adiskidetasuna eta askatasuna genero-adierazpenean) uztartzen dituen.

Tailerretan seriearen hedapena eta animazioarekin lotutako tailer praktikoak uztartzen dira. Jardunaldia amaitzean egindako animazioaren azken emaitza ikusten da, esperientzia partekatzeko, sormen-prozesua ospatu eta baterako ikaskuntza indartzeko aukera emanez.



## Garapen kulturala

# Kultura- identitatea indartuz

01

### SAN JUAN BALEONTZIA ALBAOLA ITSAS FAKTORIA

Albaolarekin lankidetzan gaude duela hamarkada bat baino gehiagotik, itsas ondare kulturala berreskuratu eta biziberritzeaz gain, tradizioan oinarritutako prestakuntza, artisautza eta berrikuntza bultzatzen dituen proiektua babestuz.

XVI. mendeko San Juan itsasontziaren erreplika zientifikoak amaiera eman dio lur gainean burutu den eraikuntza-faseari, eta itsasoan barnako etapari hasiera ofiziala ere bai.

Uretaratu zenetik, Pasaiaiko Zamakona Ontziolaren instalazioetan dago, eta bertan mastak eraikitzen ari dira.



02

### TOLOFOLK JAIALDIA JEAJEAKA KULTUR ELKARTEA

JeaJeaka kultur elkarteak antolatuta, Tolofolk jaialdiaren helburua kultura herrikoia eta folk musika bultzatzea da.

Orona Fundaziotik munduko musikaren jaialdi herrikoi hau babestu dugu berriro, Tolosan ospatu zena apirilaren 4tik 7ra. Bertan zuzeneko 7 musika-emanaldi eman zituzten artista euskaldun eta nazioartekoek musika-modalitate ezberdinetan.



03

### SENTSIBILIZAZIO-PROIEKTUA LANDARBASO

Landarbaso abesbatza musika-erreferentetzat hartzen da, eta bere kideen gaztetasuna, originaltasuna eta proiektuen berrikuntza eta kalitatea nabarmentzen dira.

Euskal kulturarekin duen konpromiso ukaezina ere azpimarratu behar da, galdutako lanak berreskuratu eta moldaketa eta grabazio berriak eskaintzen baititu.

Euskal musika tradizionala eta kantua ondare ez-material gisa sustatzeko Landarbaso abesbatzaren sentsibilizazio-proiektua bultzatu du Orona Fundazioak.



## Garapen kulturala

04

### BINAKAKO ERREMONTA TXAPELKETA ERREMONTA

Erremontea euskal pilotaren modalitate ikusgarrienetako bat da, zestarekin jokatzeko da, eta teknika eta pilota jotzean ematen zaion abiadura handia nabarmentzen dira.

Euskal kultura eta kirol tradizionala sustatzen jarraitzeko xedez, beste urte batez, Orona Fundazioa egoitza izan da, eta Sagardoaren Txapelketa izeneko erremonteko txapelketaren eta Orona Fundazioaren binakako txapelketaren aurkezpenean kolaboratzen du.

Orona Fundazioak txapelketa horien alde egiteak euskal kirol tradizionala mantendu eta sustatzeko duen konpromisoa islatzen du, ordezkatzen dituen balioekiko konpromisoa erakustez batera: Eginahala, begirunea, kooperazioa eta errotze kulturala.



05

### NI EZ NAIZ SORGINA DOCUMENTALA HERRIMA KULTUR ELKARTEA

Ni ez naiz sorgina Asisko Urmeneta komikigile nafarrak bultzatutako ikus-entzunezko lana da. Proiektu honekin Nafarroa eta Euskal Herri osoa mende batez jazarri zuen sorgin-ehizari buruz nagusi den kontakizuna deseraiki nahi da, 400 urte baino gehiagoan iraun duena.

Ikerketa grafiko eta ikus-entzunezkoa da, herriz herri, ikuspegi kritiko eta dokumentatu batekin, sorgin-ehiza izenekoan egiaz gertatu zena berreraikitze xedea duena.

Badago baterako hipotesi partekatu bat: sorgin-ehiza Europan azaleratu ziren erregimen absolutistek gizarte- eta komunitate-erresistentzia apaltzeko erabili zuten tresna izan zen.



06

### OMENALDIA NIK ERE MAITE ZAITUT MAITE ZAITUT KULTUR ELKARTEA

Maite Zaitut Kultur Elkarreak antolatutako omenaldi herrikoia maiatzaren 3an egin zen Barakaldoko Bizkaia Arenan (BEC). Bertan 14.000 pertsona elkartu ziren "nik ere maite zaitut" lelo zirraragarri batekin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei 37 urteko ibilbidean haur euskaldunentzat izan duten garrantzia aitortzeko.

Ekitaldia zirrara, musika, umore eta memoria partekatuz beteriko festa kolektiboa izan zen, pailazoei omenaldia egiteko. Bertan izan ziren diziplina anitzetako artistak, elkarreak eta haiekin hazi eta ikasi zuten adin guztietako pertsonak.



## Garapen kulturala

07

### EUSKAL MUSIKA ONDAREA DONOSTIA ERESKI GREGORIAN SCHOLA

Hildakoen Ofizioa editatu eta argitaratzeko proiektua mugarria izan da euskal musika ondarea berreskuratzeari eta gregorianoa herentzia unibertsal modura fusionatzeari begira, euskara tresna kultural berezko eta bizi modura erabiliz.

Proiektuak ia desagertzeaz zen antzinako erlijio-musikaren harribitxi bat berreskuratu du: Hildakoen Ofizioa, 1502koa, Bidaurretako monasterioan (Oñati) jatorria duena. Pieza arraroa eta zinez baliotsua, ohiko erreperitorio gregorianotik aldentuta iraun duena.

Lana latin-euskara bertsio elebidunean aurkezten da lehen aldiz, euskal literaturan oinarritzkoa izan zen Nikolas Ormaetxea "Orixeren" itzulpen enblematikoa erabiliz.



08

### 150 ANIVERSARIO VALENTIN LARREA

1876an Gabirian jaioetako Valentin Larrea Iturbe konpositore, piano-jole eta interpretearen irudia eta obra berreskuratu eta hedatzeko proiektua babestu dugu, izan ere, bere musika-ekoizpena legatu baliotsua da euskal kulturarako.

Bere jaiozaren 150. urteurrena dela medio, 2026. urtean ospatuko dena, hainbat kultur ekimenen eskutik balioan jarri ahal izango da bere garaian aski emankorra eta aitortua izan zen sortzaile honen ibilbidea.

Valentin Larrearen inguruko berreskurapen-lanak sortzaile bikain bati berriro erreparatzeko parada emateaz gain, memoria kolektiboa indartzen ere laguntzen du, musikalki eta emozionalki aberastasun handiko obra bat belaunaldi berrien eskura ipiniz.



09

### IGOGAILUA FILM LABURRA GASTIBELTZA FILMAK

Igogailua Josu Martinezek zuzendutako komedia da, umorez eta sentiberatasunez, gaur egungo gizartean pertsonen eta teknologien artean dagoen harreman korapilatsua jorratzen duena.

Egoera unibertsal bat da istorioaren abiapuntua: guztiok, noizbait, ikusezin sentitu gara.

Film laburrak inkomunikazioari, bakardadeari eta teknologiak bizitza modernoan duen zereginari buruzko gogoeta ipintzen du mahai gainean. Zientziak eta adimen artifizialak orotariko irtenbideak eskaintzen dutela dirudien mundu batean, filmak teknologiak gaitz gizakioenak sendatu ote ditzakeen galdetzen du.



## Garapen kulturala

10

### URPEKO ARKEOLOGIA-IKERKETA

#### SUHAR ARKEOLOGIA ELKARTEA

Pasaiaiko portuko bokalean, mendebaldeko Bantxan, dauden urpeko arkeologia-arrastoak ikertu eta testuinguruan ipintzeko proiektu bat da.

Ingurune horretan, Suhar Arkeologia elkarteak gidatutako lantaldeak hainbat kainoi, dimentsio handiko aingura bat eta aztarna metaliko pila bat identifikatu ditu, eta horiek ikertzen ari dira jatorria zein den zehaztu eta naufragio historiko batzuekin izan dezaketen lotura aztertzeko, Juan de Zabaleta marinel gipuzkoarraren fragatarena kasu.

Elementu guztien dokumentazio grafikoa eta plano gainekoa burutu da, horiek historiaren ikuspegitik interpretatzeko jardunean aurrera egiteko beharrezkoa den zehaztasunarekin.



## Euskararen sustapena

# Nortasun batekin estu lotutako hizkuntza

01

### IKASTOLEN JAIK

#### EHİ - EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK

Orona Fundazioak lankidetzat hitzarmena sinatu du Euskal Herriko Ikastolak elkartearekin, ikastolen aldeko bost festetan "erronka" ekimena babesteko: Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oinez.

Erronka gazteei zuzendutako ekintza da, giro kooperatibo batean jolas mota ezberdinak gaitzitzeko, ikastola ezberdinetako gazteen arteko harremana indartuz.



02

### BERTSOLARI ALDIZKARIA

#### BERTSOZALE ELKARTEA

Genero horretan dagoen aldizkari bakarra da, Bertsozale elkarteak sortu zuena 1991n, eta ekarpen erabakigarria egin du Euskal Herriko kultura-nortasunean gehien errotuta dauden adierazpenetako baten hedapenean, azterketan eta bilakaeran.

Bertsolari, gainera, bertsolaritza komunikaziorako, sormen artistikorako eta gogoeta kolektiborako tresna modura bizi eta sentitzen dutenentzako topagunea da.

Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidean aldizkariak kronikak, erreportajeak, ilustrazioak, autobiografiak, bertsoak eta komikia uztartu ditu, eduki anitz, berritzaile eta hurbilekoa eskaintzeko.



03


### KANTHORIA ETA AUTO-TUNEA ERAKUSKETA

#### MUSIKA BULEGOA

Musika eta Euskara proiektua Musika Bulegoa elkartearen 10. urteurrena ari da ospatzen, eta historian zehar musikaren eta euskararen artean izan den harreman estua balioan jartzea du xede.

Gai horri buruzko lehenbiziko osoko erakusketak ibilaldi historikoa egingo du, lehenengo aurrekarietatik gaurdaino, eta euskarazko musika gure lurraldean kulturaren, gizartearen eta batasunaren ardatz izan dela erakutsiko du.

Gainera, izaera ibiltaria izango du; Euskal Herriko hiriburuetan izango da ikusgai, eta sektoreko hainbat eragilek kolaboratuko dute.



## Euskararen sustapena

### 04 EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA

#### EUSKARABENTURA ELKARTEA

Euskal Herria zeharkatzen duen espedizioaren helburua nagusia belaunaldi berrien hizkuntza-azturetan modu positiboan eragitea da, euskara ibilbidean zeharreko komunikazioan eta sortzen diren loturetan oinarri naturala izateko espazioak sortuz.

Edizio bakoitzean 15-17 urte bitarteko 125 gazte elkartzen dira, Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik eta diasporatik etorriak.

Zeharkaldia euskaraz harreman sendoak eraikitzeko, hizkuntza-identitatea indartzeko eta parte hartzen duten gazteen artean lorratza uzten duen bizi-esperientzia bat bizitzeko abagune bilakatzen da.



### 05 JALGI HADI DOKUMENTALA

#### AEK MIROKUTANA

Dokumentalaren helburua euskarari zein Korrikari (gure lurraldeko gizarte-ekimen nabarmenetako bat) buruz begirada sakon eta eguneratua eskaintzea da.

Dokumentuak euskararen bilakaera historikoa, egun duen errealitatea eta bere etorkizuna zehaztuko duten erronkak jorratuko ditu ikuspegi ezberdinetatik. Ikus-entzunezkoaren erregistrotik harago, Jalgi Hadik gogoetarako eta gizartean eragiteko tresna izan nahi du.

Jalgi Hadi dokumentalarekin, AEK eta Mirokutanak gogoeta kolektiboa egiteko, euskararen bizitasuna indartzeko eta Korrikaren izpiritua mundu mailan ezagutarazteko abagune bat eskaintzen dute.



## Biodibertsitatea

# Gure ekosistemen babesean kolaboratuz

01

### ESPazio NATURALen BERRESKURAPENA IRUKURUTZETA FUNDazioA

Irukurtzeta Fundazioa Ecenarro anaiek Karakate y Irukurtzeta artean (Bergara) kokatzen den ingurune naturala eta kulturala babestu, berreskuratu eta hedatzeko konpromisoaren ondorioz sortutako ekimena da.

Proiektuaren helburua epe luzera begira espazio hau mantendu eta zaindu egiten dela ziurtatzea, eta ingurumenari, paisaiari eta historiari dagokienez duen aberastasuna gizarte osoaren begietara balioan jartzea da.

Irukurtzeta Fundazioaren lanerako ardatz nagusietako bat mendia zuhaitzez beteriko larre

bihurtzea da, bertako zuhaitzak berrezarritu eta basogintza-kudeaketa jasangarri baten alde eginez.

Basogintzako lanez gain, fundazioak pottoka eta Euskal Herriko mendiko zaldia gaineratu ditu, eta espezie enblematiko horiek zaintzen ditu. Horrela, animalia horien elikadurarekin eta ongizatearekin arduratzen da.

Azkenik, Irukurtzeta Fundazioak kudeatutako esparrua bere balio historiko eta arkeologikoarengatik ere nabarmentzen da.



02

### ENARAK PROIEKTUA

#### ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Proiektuaren helburua da herritarrak sentsibilizatu, prestatu eta mobilizatzea, hiriko hegazti intsektujaleen kontserbazioan, gure hirietako ekosistemen orekari begira funtsezkoak baitira.

Hegazti mota horien biziraupena, hein handi batean, gure eraikinen mende dago, horietan ipintzen baitituzte udaberriz udaberriz beren habiak. Hori dela eta, funtsezkoa da kumeen espazio horiek aitortu, babestu eta errespetatzea esku-hartze hiritar edo birgaitzea arkitektoniko bakoitzean.

Enarak proiektuak bide parte-hartzaile eta hezigarria proposatzen du, datuen bilketa sustatuz, eta baliabide irisgarriak eskainiz, edonor izan dadin espezie horiek identifikatu eta modu aktiboan kolaboratzeko gai.





Jauregi bidea z.g.  
20120 Hernani (Gipuzkoa)  
Telf. +34 943335588

[info@oronafundazioa.org](mailto:info@oronafundazioa.org)  
[www.oronafundazioa.org](http://www.oronafundazioa.org)